

www.noaia.com

Noaia!!!




Gipuzkoako Kopa,
jubenil taldearen helburua



Bertso Eskola
jarri dute martxan

PSU

serigrafia



serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industri serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

www.serigrafiaiosu.com

Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL

"EL ALMACEN DE AGINAGA"

GIPUZKOAKO LEHEN ALTZARI FABRIKA

ALTZARIAK, SOFAK, KOLTXOIAK...

FABRIKAKO PREZIOAK!!!

*Mahaiak, aukiak, logelak, sofa-ohak,
literak, sarrerako altzariak,
neurri eta kolore guztietako armairuak...*

ORDUTEGIA:

Astelehenetik Larunbatera (ostegunetan jai)

10:00-13:00 eta 16:30-19:30

IGANDEA: 11:00-14:00

Errasti industrialdea (Aginaga sagardotegiaren ondoan)
AGINAGA 943 36 93 59

Tapa eta aurkibideak prest

350-391

Agur esan diogu 2009 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2009ko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok azala eta aurkibidea doan jaso ditzakezue NOAUA!ko egoitzan.

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, Lizardin edota Lauroken egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.



antenas Telemar

63 egun falta dira!!!



elkano kalea 13 HERNANI

Tifnoa. 943 55 33 99
info@antenasteleamar.com



Albiste iruditan !!

Parte hartzea sustatzeko, bitarteko guztiak jarriko dira

Otsailaren 27 eta 28an burutuko den herri galdeketa, jendearen parte hartzea ahalik eta handiena izan dadin bitarteko guztiak jarriko direla adierazi zuen alkateak urtarrilaren 20ko prentsaurrekoan.

Hala nola, Usurbilgo herritarrei zuzenduz, liderrak zirela esan zien. Greenpeacek Copenhageko goi bileran zabaldu zuen pankartan, "Politikoei hitz egiten dute, liderrek ekin ekiten dute" irakur zitekeen, eta alkatearen ustez, usurbildarrek, ekimena hartu diote hondakinen arazoari dagokionean.

Gogoratu zuen, osasun publikoa eta ingurugiroa babesteko asmoak gidatu duela beti udalaren ekintza. Eta horri jarraiki, udala ez dagoela "zaborraren erdian eta honen errauspean bizitzeko prest".



URTARRILAREN 20KO PRENTSAURREKOAN EMAN ZEN HERRI KONTSULTARAKO EGUTEGIAREN BERRI.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaerri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publicitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbietta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

- GIDABAIMENA, EUSKALDUNTZE BIDEAN **5. OR.**
- GURE PAKEA ELKARTEAREN BATZARRA **6. OR.**
- BERTSO ESKOLA, BERRIZ ERE MARTXAN **8. OR.**
- USURBIL FT JUBENIL MAILAKO TALDEA **15. OR.**



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

iz Agirre
ELEKTRIZITATEA
943 36 50 95-609 06 81 11
izagirreletrizitatea@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

Josue
Igeltseritza:
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

LATAILLADE   
ITURGINTZA
GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK
Aritzitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021



LUIS ARANALDE

Gotzain kontuak

A spaldiko partez Donostiako katedrala ederki bete zen bai Juan Mari Uriarteren agur mezan eta baita Jose Inazio Munillaren ongi etorrian ere. Bi elizkizunetan neu izan nintzen organojole. Landuta daukadan organo errepertorioa ia osorik interpretatu nuen.

J. M. URIARTEri AGURRA

Bere lagun sentitzen naiz; berak eskatu zidan duela ia zortzi urte ea Artzain Onaren katedraleko organista eta bertako musikaren arduradun izan nahi nuen; berehala eman nion baiezkoa. Geroztik harreman estua izan dugu. Asko zor diot musikaren monumentu den organo hori nire eskuetan jartzeagatik. Nire aldetik ere saiatu naiz ondo erantzuten.

Hitzaldian, besteak beste, etxeko defentsa egin zuen; nolabait esateko, hamar urte hauetan bere bidelagun izan direnen goraz- rrea. Gure elizbarrutiari egin zaizkion zenbait kritikak ez dutela funtsik adierazi zuen, aurreiritzien fruitu besterik ez zirela. Gustatu zitzaidan Einstein handiaren hitz batzuen aipua, alegia "atomoa desegitea baino zailagoa izaten dela aurreiritzi bat desegitea".

Gure elizbarrutiaren aberastasunak bezala aipatu zituen: laiko- en parte hartzea, komunitate "txikien, baina, bizien" sua, erlijioso- en presentzia, Pastoral Barrutiak martxan jartzea...

Uriarteren aparteko dohain gisa bere "gertutasuna" aipatu zuten gehienek; gaixoeekin eta lotuta "keinu apartak ikusi dizkiogu" zioten miresmenez. "Bakearen alde lan asko egin du" zen beste iritzi orokorra. Mila esker, Joan Mari! Luzaro gozatzeko moduko jubilazioa opa dizut.

J. I. MUNILLARI ONGI ETORRIA

Uriarteren agurrean jendetza izan baldin bazen, Munillaren ongi etorrian orratz bat bera ere ez zen sartuko Katedralean.

Elizkizuna hasi baino ordubete lehenago Gotzain Eliza betera.

Jose Inazioekin ez dut harreman berezirik. Apaiz Batzorde kide naiz eta bertan topo egin genuen egun batez. Ez zuen aparteko parte hartzerik izan.

Bere sermoian oso estilo apala agertu zuen, gertukoa, bromaz- koa eta "kanpetxanoa" une batzuetan.

Denok dakizue, nik ere sinatu nuen Munillaren izendapena- ren ondoren Gipuzkoako Erretoreok atera genuen idatzia. Izan ere, Jose Inazio hautatzerakoan ez dute batere kontuan hartu Elizbarrutiaren eta bere erakundeen sentipena. Bestetik, Zumarragako parrokoa izan zen garaian bere ibilbidea "Elizbarrutiko lan ildoetatik oso urruti zegoen eta ez zuen hala- koekin bat egin".

Gure idatziak ez dauka zerikusirik politikarekin, zenbait prens- tsak adierazi duen bezala; ez da eraso pertsonala ere. Gure kezka nagusia hau da: martxan jarri ditugun proiektu pastoralak oztopa- tu eta egitasmo pastoral askoz ere kontserbadore eta tradizionalis- tagoak inposatuko ote dituen.

Bizitza filosofiaz edo printzipioz, pertsona oroengan fida izan naiz. Baita Munillarengan ere, nola ez, bada. Joan Mari Uriartek dioen bezala: "kide izatea gauza bat da, eta buru izatea bestea. Buru denak batasunerako betebeharrak handiago dauka eta batasun- ean ahalegin gehiago egiten du. Uste dut Munillak ere ahalegi- na egingo duela batasuna lortzeko". Ea bihozkada hori gauzatzen duen gure Gotzain berriak.

Jose Inazio: zatoz senide bezala eta ez autoritate argudioz arma- tuta. Horrela, elkar errespetatuz, elkarlanean saiatuko gara zure- kin batera laiko, erlijioso eta apaizok. Nik interpreta nezakeen musikarik ederrena joz egin nizun ongietorria. Bizinari kanta izan zaitezten opa dizut. Balore ebanjelikoak hots egitea eta gauzatzea da zure rola eta hori espero dugu denok. Izan zaitez ongietorria.

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Joxe Piñas - Ugaitz Agirre - Unai Agirre - Idoia Torreagarai

Ika-mika!

Ezker abertzalearen hirugarren batzarrerako deia

A maitzen ari da azaroan abiatu auzuen barne eztabaida, eta ezer baino lehen zorionak eman nahi dizkiogu ezker abertzalearen oinarri sozialari emanda- dako erantzunagatik eta izandako parte har- tzeagatik. Izugarria izan da komunikabide- ek jokaturako papera eztabaida bera baldin- tzatu eta ezker abertzalean apurketa lortze- ko asmoz. Rubalcabaren prentsa bulego- nisara aritu dira Vocento eta Grupo Noticias taldeko hedabideak. Poliziak eta Barne Ministerioak emandako bazka jan, eta kaze- taritzako kode deontologiko guztiak pikuta- ra bidaliz, izugarritzako gezurrak zabaldu dituzte.

Hala eta guztiz ere, oztopo eta intoxikazio- saio orori aurre eginez, ezker abertzaleak eztabaida burutu du, eta, gainera, oso dina-

mikoa izateaz gainera, oso parte-hartzaile- izan da. Eztabaida bere horretan indar era- kustaldi bat izan da. Euskal Herriaren luze- zabalean 274 batzar egin ditugu, eta 7.600 kidek hartu duzue parte batzarretan. Gainera, ezker abertzalekoa ez den jende- askok ere irakurri du txostena. Internetetik 280.000 deskarga baino gehiago egin dira, eta 25.000 liburuxka ere banatu ditugu.

Eztabaida, dena den, oraindik ez da ama- itu, hirugarren batzarra egiteko baitugu. Bilkura honetan honako hiru gaiak landuko ditugu:

- Egoera politikoaren azterketa.
- Eztabaida prozesuaren balantzea.
- Eztabaida prozesuaren ondorioak.

Eraso hauek guztiak erakusten dute - bai komunikabideetatik bai Poliziatik zein epai-

tegietatik pairatu ditugunak - ezker aber- tzaleak eztabaidaturiko apustu politikoak oinarri sendoa duela Euskal Herrian, eta indar independentistak biltzeko garaia heldu dela bizi dugun gatazka politiko eta armatua gaintu, eta herri hau indepen- dentziaren bidean jartzeko. Azken hilabete- tan ikusi da indar metaketa posible izateaz gain, erreala ere badela, beraz, orain erronka horri buru-belarri eustea dagokigu.

Ez da gutxi esku artean daukaguna, beraz, animatu eta parte hartu azken batzar honetan. Datorren larunbatean egingo dugu, urtarrilak 30, goizeko 10:30ean Artzabal zahar egoitzako azken solairuan.

Elkar ikusiko garelakoan, ondo izan.

Usurbilgo ezker abertzalea

Gidabaimena, euskalduntze bidean

Buruntzaldeko udalen auto-eskoletan euskararen erabilera sustatzeko kanpaina berria abian da; gidabaimenaren azterketa teorikoa prestatzeko euskarazko materiala prestatu eta Buruntzaldeko hamaika auto-eskoletan banatu dute.

Hemezortzi urte inguru dituzten gazteei zuzendutako kanpaina aurkeztu berri dute Buruntzaldeko udaletako euskara batzordeek; gidabaimena euskaraz prestatzeko materiala aurkeztu zuten iragan urtarrilaren 22an, Lasarte-Oriako Manuel Lekuona kultur etxean. Bertako udaleko euskara batzordeko lehendakari Rikardo Ortegak, eta euskara teknikari Marifer Gorostizak, Hernaniko udaleko Euskara Delegatu Idurre Lukasek eta Gipuzkoako auto-eskolen elkarteko presidente Arantxa Otamendik parte hartu zuten prentsaurrekoan.

BURUNTZALDEKO UDALAK

“18 urte inguru dituzten gazteak gidabaimena euskaraz prestatzera animatu nahi dituzte”

Aurreko urteetan, arrandegi, harategi edota okindegietan egin bezala, auto-eskoletan euskararen erabilera normaldu eta bultzatzea da helburua; bertako langile eta bezero diren artean. Horregatik, azterketa teorikoa prestatzeko liburua kaleratu dute. Modu entretenigarriagoan, beharrezko edukiak irakurri, testak osatu eta zuzenketak egiteko, multimedia eta “Visuala” ikus-entzunezko programez gain.

Buruntzaldeko hamaika auto-eskolek bat egin dute egitasmoarekin: besteak beste, Usurbilgo Solozabal auto eskolak. Guneotan, azterketa teorikoa prestatzeko euskarazko materiala dago, udalek diruz lagunduta auto eskolek burutu duten inbertsioari esker. Bide horretan jarraitzeko beha-



BURUNTZALDEKO UDAL ORDEZKARIAK ETA ESKOLETAKO ORDEZKARIAK, KANPAINAREN AURKEZPEN EKITALDIAN.

rra azpimarratu zen. “Administrazioa garen neurrian, herritarrek zerbitzuak euskaraz jasotzeko neurriak hartu eta baliabideak jarri behar ditugu”, adierazi zuen Hernaniko udaleko Euskara Delegatuak.

Arazo handiena, aztertzaile falta

Egitasmo honekin oinarri sendoa jarri arren, prentsaurrekoan parte hartu zuten ordezkariak azpimarratu zuten, oraindik egiteko asko dago. “Lehen urrats hau sendoa da, baina egiteko asko falta da. Arazo handiena, trafikoko aztertzaileak elebidunak izatea da”, adierazi zuen Gipuzkoako auto-eskolen elkarteko presidentek. Materiala euskaraz argitaratu arren, aztertzaileak eta irakasleak elebidunak faltan dira, adibidez.

Horregatik “Semaforo berdea: orain gidabaimena euskaraz. Eman bidea” izeneko Buruntzaldea mailako kanpaina ez da hemen amaitzen. Materiala jada aurkeztu diete auto eskolei. Datorren maiatzean, egitasmo honetan parte hartu duten auto-eskolen berri emateko kanpainaren bigarren zatia ekingo diete Buruntzaldeko udalek, 18 urte inguru dituzten gazteak gidabaimena euskaraz prestatzera bultzatzeko. Hau

hasiera baino ez da, Lasarte-Oriako udaleko euskara teknikari Marifer Gorostizak prentsaurrekoan gogorazten zuenez, “jarraipena izango du urtero, dena normaltzera heldu arte”. Segida eta baita hedapena ere, Buruntzaldea mailan banatu diren liburu eta multimedia programez gain, badirelako zenbait auto-eskola jada euskaraz materiala kaleratu eta erabiltzen dutenak.

Internet ikastaro berria, astelehenetik aurrera

KzGunean

Otsailaren 1ean hasi eta otsailaren 12a bitartean, “Internet ikastaroa eta +e administrazioa” ikastaroa eskainiko dute KzGunean. Ikastaroaren ordutegia: 16:00etatik eta 18:00ak arte.

Otsailean KzGunea arratsalde irekiko da, 16:00etatik 20:00etara. Telefono zenbakia: 943 570 999.



Urtea bete ekitaldi, Gure Pakea elkartearen eskutik

Artzabalgo eraikin berria inauguratu eta urtea bete berri den honetan burutuko dute Gure Pakea elkartekoek ohiko batzar nagusia. Ostiral honetarako, urtarrilak 29, egoitzan bertan 16:00etan eta 16:30etan finkatu dituzten bi hitzorduetan, aurreko urteko balantzea egin eta 2010erako antolatu nahi dituzten ekimenei begira jarriko dira. Elkarteko presidente Tiburtzio Arrutik egin digu bi urteen arteko zubi-lana.

NOAUA! Antolatutako ekintzei dagokienean, zer nolako balantzea egin dezakezue?

Tiburtzio Arruti. Iaz zazpi irteera egin genituen. Kutxak antolatutako lau hitzaldi ere izan genituen: auto estima, bakardadea, oinak nola zaindu... Jende asko etorri zen. Hitzaldira ematera zetozenak harrিতa geratu ziren, 60 lagun bildu baitziren. Haiek zioten, Eibarren adibidez, hamabi bat lagun joaten zirela. Aurten beste hitzaldi batzuk antolatuko ditugu. Memoria lantzeko tailerra, esperientzia eskola, eskulanak, pintura, eta bingoa ere antolatu ditugu. Beste urteetan ez bezala, kultur bidaiak ere burutuko ditugu. Jubilatuzko animatu nahi nituzke, adineko jendea joaten baita gehienbat.

N. Artzabalgo eraikin berriak urteurrena bete du. Zer nolako harreara izan du erabiltzaileen artean?

T. A. Inpresioa oso ona da. Hartu emanak baditugu, Andoain, Lasarte-Oria edota Donostiakoekin. Etortzen dira, eta zer nolako etxea dugun esaten digute. Niretzat eraikinak duen gauzarik ederrenetakoa, argitasuna da. Buelta guztian ez du ezer. Balorazioa, oso ona. Tabernak ere asko laguntzen



EGURALDI TXARRA DENEAN, ARTZABAL BETE-BETE EGINDA EGOTEN DELA DIO TIBURTZIO ARRUTIK, GURE PAKEAKO KIDEAK.

du, beste mugimendu bat sumatzen da.

TIBURTZIO ARRUTI

“596 bazkide gaude. Iaz jende asko etorri zen bazkidetza egitera, eraikin berri hau ireki zenean”

N. Guneari, bizitasun handia eman dio herriko beste talde edo elkarteek zuenean antolatu izan dituzten ekitaldiek ere?

T. A. Azaroan adibidez, hilabete osoan zehar hogeit bat hitzaldi antolatuko ziren. Bestela jendea oso gustura dago. Alde horretatik, eskerrak eman beharrean gaude Udalari, nahiz boladetan txiki geratzen zaigun eraikina. Eguraldi txarra denean, goia eta behea bete-bete eginda egoten da.

N. Erabiltzaile kopurua hazi da?

T. A. 596 bazkide gaude. Jendea bada, bazkidetza egin nahi duena. Iaz jende asko etorri zen bazkidetza egitera, eraikin berri hau ireki zenean. Urteko kuota ere oso baxua da. 5 eurokoa zen orain arte, aurten 6 euroa igotzeko asmoa dugu.

N. Kuota kobratzeko sistema aldatu duzue?

T. A. Hartara guk ez dugu ibili beharrik dirua eskutan, denek noiz ordainduko duten zain. Dena Kutxaren bidez egingo da, guretzat ere lana errazteko. Bazkideek kontu korronteko hogeit zenbakiak ekarri behar dituzte Artzabalgo gure bulego-
ra.

N. Erabiltzaileek zein da gehien baloratzen duten zerbitzu edota gunea?

T. A. Irteerak. Beste jende bat bada,

egunero jokora datozenak. Gero beti izaten da hemen epeltasuna, giro ederra. Bero eginda ere, kanpoan ederki. Bestalde, badaude ile-apaindegia, podologo zerbitzua... nahikoa osatuta gaude. Gauza gehiago egin beharko diren, ikusiko da.

N. Egongo dira Artzabalera joaten ez diren adineko herritarrak. Zer esan haiei?

T. A. Irteeratara animatuko nituzke. Bestalde, jende gehiago ideia berriekin etorriko balitz, ekimen gehiago antolatuko genituzke. Zortzi kide gaude batzordean, jende berriak ideia berriak ekarriko balitu, askoz hobeto. Urteko egutegia osatzen ere asko lagunduko ligukete.

Bazkideen arteko txapelketak, otsailean

Mahai joko eta mugimenduzko txapelketak jokatuko dira otsailean zehar, Gure Pakea elkarteak antolatuta. Puntuak, musean, tutean eta igel jokoan arituko dira, otsailaren 5a baino lehen izena ematen duten bazkideek. Saio guztiak 16:00etan hasiko dira. Egutegia honakoa da:

Otsailak 9, asteartea: puntuak.
Otsailak 10, asteazkena: tutea.
Otsailak 16, asteartea: musa.
Otsailak 17, asteazkena: igel jokoak.
Otsailak 23, asteartea: sari banaketa eta ondoren, luncha.

Irteerak, Jubilatutako Astea, ikastaroak...

Honakoa da oraingoz, aurtengorako Gure Pakea elkarteak antolatu duen egitaraua:

Martxoak 22-28: Jubilatutako Astea.

Apirilak 17: Iratxera ibilaldia.

Maiatzak 5: Orio-Zarautz edo Zarautz-Getaria irteera. Bazkaria Zarautzen.

Maiatzak 15: Oñati-Arantzazu-Tolosa irteera.

Ekainak 19: Biarritz eta Donibane-Lohitzunera irteera.

Uztaila hasiera: Igel Jokoa Santixabeletan.

Uztailak 17: Laredora irteera.

Iraila: ikastaro eta tailerrak mar-txan: bingoa, memoria, esperientzia eskola eta pintura ikastaroa.

Irailak 11: Araba aldera irteera.

Urriak 3: 80 urteko bazkideei omenaldia.

Urriak 16: Tuter-Lodosa irteera.

Azaroak 13: Irun-Arizkun-Hondarribia irteera.



IRTEERA ETA IKASTARO UGARI PRESTATU DITUZTE 2010ERAKO.

Asteburu honetan, Batzar Nagusia

Gure Pakea elkarteak ohiko Batzar Nagusia burutuko du ostiral honetan, urtarrilaren 29an. Bi hitzordu finkatu dira batzarrerako deialdian; lehen deialdia 16:00etan, bigarrena 16:30erako. Artzabalgo egoitzan egingo da batzarra.

Gure Pakea elkartetik ohartarazi dutenez bestalde, bazkideetza kuota

bankuen bidez kobratuko da aurtengor. Horregatik ahal bezain laster, kontu korronteko hogeitazentzaki berri ematea eskatzen zaie Gure Pakea elkarte bazkideei.

Asteleheneetik ostiralera Artzabalgo bulegora goizez joanez, 10:00-12:00 artean, edota 943 368 770 telefono zenbakira deituz.

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA


ARRANDEGIA
PELLO
Puntapax Kalea,7
Tif 36 21 64
USURBIL

BORDATXO
edaritegia
PINTXO BEREZIAK
Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

Andoni Errazkin
Xukin
igeltseritza orokorra
Barne eta kanpoko lanak
USURBIL
663 08 76 71 • 943 24 34 65

Bertsozaletasunak

zortziko gazte taldea biltzea lortu du

Duela pare bat hilabetetik Etumeta-AEK euskaltegia, bertsozale gazte talde baten bilgunea ere bada. Bertsozale ezagutu, ikasi eta ondo pasatzea dute helburu. Zortzikotea astean behin jarduten da, bertsoak sortzen, baita abesten ere. Talde giro polita sortu dute, eskolako kide Lur Etxeberriak eta Jon Aizpuruak azaldu digutenez.

NOAUA! Bertso taldearen sorrera.

Lur Etxeberria. Bertsoan ikasteko gogoia betidanik izan dut, baina beti lana zela eta denborarik ez. Urte honetan arratsaldetan denbora gehiago nuen, Getarian hasteko begira aritu nintzen. Baina urruti samar geratzen zen. Behin komentatu nion Josu Oizartabali, bertsoan gustura ikasiko nukeela zerotik hasita. Bera irakasteko prest agertu zen. Ibai Esoainekin hitz egin zuen. Maisuak genituenez, ikasleak biltzen joan ginen. Koadrilan batzuk baiezkota eman zuten. Gure ustean gustura hasiko zirenei ere komentatu genien.

Jon Aizpuru. Lagun artean komentatzen genuen zaletasuna, baina azken pausoa emateko tarterik ez genuen haritzen.

N. Zerotik hasita, estreinaldia zer moduzkoa izan da?

J. A. Asmoa oinarritik ikastea da; bertsoa nola osatu ulertzea, zer arauen barruan adierazi behar den, egitura ezagutu... Eta hori guztia taldean lantzen joatea eta ondo pasatzea.

L. E. Lotsa galtzea, burua bizkortzea.

N. Bertsozaletasuna nondik dator-kizue?

J. A. Duela hamar bat urte bertso-afari batean egon, bertsoak entzuten hasi eta geroz eta gustukoagoa nuen. Beti saiatzen zara saioaren bateko grabazioa lortzen, edo irakurtzen.

L. E. Haurra nintzela, Pagotxa irratia



IBAI ESODAIN BERTSOLARIAREKIN ARI DIRA IKASTEN.

zegoenean, astero beti bertsoak abesten genituen. Eskolan ere bertsoak buruz ikasten aritzen nintzen. Gero zaletasuna nahiko baztertua izan dut. Denbora honetan, Hitzetik Hortzera saioa entzun izan dut, txapelketak jarraitu...

ASTEARTERO ELKARTZEN DIRA

“Bi hilabete inguru daramatzagu. Bertso idatziren bat abesten, doinu berriak ikasten... aritzen gara”

N. Astearteroko zuen hitzorduan, zertan aritzen zarete?

J. A. Bi hilabete inguru daramatzagu. Saioren bat entzun badugu, komentatzen dugu. Euskal Herriko txapelketa zela eta, astero saioaren bat egon da eta hori komentatzen genuen. Beti bertso idatziren bat ekartzen da eta hori abesten, doinu berriak ikasten, nola landua dagoen aztertzen, zer irudi literario dituen ezagutzen... aritzen gara. Gero, batzuetan doinu batekin bertsoak idazten saiatzen gara, gai batzuk emanda bertsoak lantzen, edo koplatan bat batekoan saiatzen gara.

N. Bertso papera edo bat batekoa, zer nahiago?

L. E. Berez politagoa bat batekoa iruditzen zait baina trebetasun handiagoa behar da. Errazagoa eta erosagoa aldiz, idatzian. Taldean denetarik dago, badira idatzian bakarrik nahi dutenak halere.

J. A. Bat batekoa. Orokorrean ordea, denon helburua bertsoa zer den ikastea da. Eta bertsoaren inguruko kultura lantzea. Hortik aurrera, idaztea, eta gure arteko lotsa gainditu, norberak bere buruarengan sinistea falta da. Egiten ari garenekin gozatzea da asmoa, eta egindakoa aztertzeke gaitatea, hobetzen joateko.

Bertso Eguna, larunbatean Donostian

Hustubetehustu, hori da aurten bertso Eguna. Larunbat honetan, urtarrilaren 30ean ospatuko da Donostiako Kursaalaren. Sarrerak www.bertsosarrerak.eu web orrialdean eskura daitezke.

Hona hemen egitaraua:

12:00 Kalez kale Donostiako Alde Zaharrean.

18:00 Ekitaldi nagusia Kursaalaren.

21:00 Afaria eta festa Kursaalako Martin Berasategi jatetxean.

“Animatzen denak, azaldu besterik ez du”

NOAUA! Gaurkotasuneko gaiak lantzen dituzue?

J.A. Orain arte normalean, bertso idatzi batzuk, edo bertso saioren batean kantatu diren gaiak erabiltzen ditugu

L.E. Aurrekoan irakasleak komentatzen duenez, orain, gai oso irekiak planteatzea modan omen dago; gai bezala hitz bat botatzen omen dute. Gurean ere hala ari gara.

N. Bertso eskolen garrantzia azpimarratu izan da, bertsozaletasunaren etorkizuneko giltzarri gisa. Iritzi berekoak zarete?

L. E. Adibidez, lehen, garai batean gure aitonek telebistarik ez zegoenez, irratan entzunda, bertsoan arituta ikasten zuten. Baina gaur egun, bertso eskolarik gabe nork bere kasa jarduteko ohiturarik ez dago. Bertso eskola batera joan gabe, zaletasun handia izan behar duzu zure kabuz aritzeko.

GIRO ONEAN

"Bertso eskolek koadrila ezberdinetako jendearekin harremanatzeko aukera ematen dute"

J. A. Bertsoak beste era batera lantzen dira gaur egun. Batzuk gaitasun gehiago izango dute berez, baina ez gara inor jaiotzen jakinda. Klasera joan eta ariketak lantzea, horrek du garrantzia, biharko egunean ez bakarrik bertsolariak egongo badira, baizik eta baita zaletasuna egongo bada ere. Askotan bertso eskoletan, taldeak irekiak dira, baina gure lotsa tarteko, itxiztat jotzen ditugu. Pena da, hor dago transmisio etena. Bertso eskolek gainera, hizkuntzaren inguruan bueltaka aritzeko eta koadrila desberdinetako jendearekin harremana izateko aukera polita ematen dute.

N. Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa jarraituko zenuten. Zer irudituzaituzue?



“KOADERNOA, BOLIGRAFOA ETA GOGO PIXKA BAT BESTERIK EZ DIRA BEHAR”, HALA DIOTE BERTSO ESKOLAKO KIDEEK.

L. E. Txapelketako finala ikusi nuen. Gainerakoena, Internet eta egunkari bidez jarraitu dut. Txapelketako bertsolariak izugarriko meritua dutela iruditzen zait. Maila handia dute. Bizkorra, argia izan behar duzu.

J. A. Saioren batera joan arren, beste batzuetara joateko gogoz gelditu ginen. Internet bidez segitu dut gehiena. Asteartetan, ikusitakoa komentatzeko balio izan digu, ikasteko. Txapelketak animatzen du jendea. Bertsozaletasun pixka bat duenak gehiago.

N. Zuen bertsozaletasuna eskolatik kanpo ere bideratzen duzue?

J. A. Besteek xaxatzean. Badakizu, ordu txikitako indar handiak.

L. E. Norbait behar da ondoan, jarraituko dizuna, edo hasiko dena. Gustukoa dut. Aukera izanda, norbait animatzen denean, hasten gara.

N. Talde irekia zuena. Inork interesa balu, nora jo behar luke?

L. E. Zortzi lagun gaude egun. Bildu eta segituan hasi ginen. Orain arte ez dugu publiko egin, baina taldea irekia da. Animatzen denak, azaldu besterik ez du, asteartean 21:00-23:00 artean euskaltegira.

J. A. Koaderno, boligrafoa eta gogo pixka bat besterik ez dira behar.

Datorren ostegunean, Santa Ageda bezperako saioak

Otsailaren 4a, Santa Ageda bezpera, kantu eskean kalera irteteko eguna. Hona hemen datorren ostegunerako deituak dauden ekitaldiak:

15:00-16:30 Udarregi ikastolako Lehen Hezkuntzako ikasleak kalean zehar Santa Ageda bezperako koplak kantatzen arituko dira.

16:00 Haur Hezkuntzako ikasleak ikastolatik frontoira abiatuko dira, Lehen Hezkuntzako ikasleekin batera Santa Ageda bezperako koplak abestera.

18:30 Zubietarrak abesten irtengo dira, Zubieta Lantzenek antolatuta.

Iluntzean, Kaxkoan hitzordua: herri gunean osteratxoa, eta gero sagardotegira, koplak abestera.



Matrikulatzeko garaia ireki da Udarregi ikastolan

Otsailaren 1ean hasiko da Udarregi Ikastolan matrikulatzeko garaia. Hamabost egunez luzatuko da matrikulatzeko epea. Mariaje Imaz Udarregiko zuzendariak matrikulazioaz eta ikastolaren beraren erronka nagusietaz hitz egin digu. Orriotan da elkarrizketaren lehen zatia. Datorren asteko NOAUA!n izango du jarraipena.

NOAUA! Eleanitza da Udarregi ikastolaren eskaintza. Ingelesa, gaztelera eta frantsesa irakatsiz. Baina heziketa euskaldunean oinarritzen da Udarregiren izaera. "Globalean pentsatu, toki mailan jardun", ezta?

Mariaje Imaz. Udarregiko Hezkuntza Proiektuan gure izaera azaltzerakoan aipatzen eta definitzen dugun lehenengo ezaugarria hizkuntza eta kulturari dagokiona da. Bertan bi aspektu nagusi azpimarratzen ditugu: batetik, euskara eta euskal kulturaren transmisioan ikastolak hartzen duen konpromisoa eta bestetik, beste lurraldeetako kultura eta hizkuntzei ematen diegun garrantzia eta haiekiko gure jarrera.

Testuinguru honetan kokatuta ulertu behar da Udarregik hezkuntza eredu eleanitzaren ezarpenari ematen dion garrantzia eta horren alde, ikastolaren hasieratik beretik, egin den apustua.

Apustu honetan ez gaude bakarrik, ezen Ikastolon mugimenduan, aspaldidanik ari baikara eleaniztasunaren bidea jorratzen eta horregatik ere, beren seme-alabak matrikulatzeko garaian ikastola aukeratzen duten familiek berehala ikusiko dute beraien haurrak ingelesaren irakaskuntza goiztiarrean lehenengo pausuak ematen, HHko 4 urterekin, hain zuzen ere, eta DBHko 4. mailara iritsi bitartean entzun ahal izango diete, hitz solte eta bakan batzuetara baino haratago doazenak, hizkuntza horretan esaten.

Era berean, LH3. mailatik aurrera gaztelaniaren irakaskuntza formalaren hasiera izango dute, eta DBHn, hautaz-



□ 16 URTE ARTEKO IKASLE BERRIAK OTSAILAREN 1 ETIK 12RA

MATRIKULATU AHAL IZANGO DIRA UDARREGI IKASTOLAN.

ko gaien artean frantsesa ikasteko aukera ere edukiko dute.

Agian norbait izutu egingo da pentsatuz beren seme-alabak hizkuntzen anabasa honetan zoratu beharrean egongo direla, baina lerro hauek aprobetxatu nahi ditut, mezu baikorra agertzeko, izan ere, Eleaniztasunaren hautuan gure aurretik doazen beste ikastolako emaitzek erakusten diguten moduan, apustu zuzena baita Udarregik egingina duena.

MARIAJE IMAZ

“Herrian ikastetxe bakarra izatea, guretzat akuilua da, geroz eta hezkuntza hobea eta kalitate handiagokoa emateko bidean”

Alabaina eleaniztasunaren kontzeptua ulertzeko garaian, ez dugu ahantzi behar, ardatza euskara dela eta euskararik gainerako hizkuntzen jabeakuntzarainoko bidearen muina euskara bera izango dela, beraz, zuk zeuk zure galderan aipatzen zenuen moduan, “globalean pentsatu, toki mailan jardun”.

N. Matrikulazioa osatzear diren gurasoen tokian jarriz, ze pauso eman behar dituzte haurra Udarregi ikastolan matrikulatzeko?

M. I. Otsailaren 1etik 12ra izango da aurtengo matrikulazio kanpaina 3 urtetik 16 urte bitartean aurkitzen diren ikasle berrientzat. Beti egin ohi dugun moduan ikasle eta beren familien datuak jasotzeaz gain, Ikastolaren funtsezko ezaugarrien berri emango diegu eta gaur egun indarrean ditugun hezkuntza proiektuei buruzko informazio zabalera ere bai.

Udarregi Ikastolaren eredua, Ikastola Eredua da, eta Euskal Herriko beste ikastolekin partekatzen ditugun helburuak eta egiteko era partekatu nahi ditugu geurea aukeratzen duten familiekin.

Hezkuntza ikuspegitik, Udarregiren ahaleginik handiena, eskaintza zabalera bezain interesgarria egitean datza, eta norbaitek pentsa zezakeenaren kontra, herrian ikastetxe bakarra izatea, guretzat akuilua da, geroz eta hezkuntza hobea eta kalitate handiagokoa emateko bidean.

Bide honetan berriz, Usurbilgo familiek Udarregi aukeratzeko gogo eta ilusioa edukitzea da gure nahia, eta herritarren konfiantza hori lortzea, Ikastolaren hasieratik dugun erronkarik garrantzitsuena. Beraz, hemendik animatu nahi ditut beren seme-alabentzat eskola bila dabiltzanei Udarregi aukera dezaten, egiten ari garen hezkuntza bidea elkarrekin egin ahal izan dezagun.

“Bertako haurrak herrian haztearen garrantzia azpimarratu nahi dugu”

NOAUUA! Orain 0-16 urte arteko eskaintza egiten du Udarrégik. Haur Eskola eta Udarrégi arteko elkartzek zer nolako onurak ekarri ditu, aipatzerik bai?

Mariaje Imaz. Aspaldikoa da Ikastolaren asmoa 0-16 adin tarteko seme-alabak dituzten familiei Hezkuntza Zerbitzu integrala inoiz eskaini ahal izatearena.

Herriak sortua eta herriarekin batera hazia, Ikastolak egindako 40 urtetako ibilbide luzean erronka txiki nahiz handiei heldu egin die.

Garaian garaiko testuingurutik abiatuta eta Udalarekin etengabeko harremanean nahiz elkarlanean oinarrituta, une bakoitzeko herriko hezkuntza beharrei begira jarri eta ahalik eta erantzun koherenteena, zabalena eta publikoena ematen ahalegindu gara behin eta berriro.

0-16 URTE

“Ikastolako hezkuntza proiektuari begira jarri eta garaian garaiko konpromisoa berreskuratu dugu”

Honela bakarrik ulertuko da Udarrégik, belaunaldiz belaunaldi, sorreraren espiritua garatzeko egindako lana eta era berean, espiritu honek jasoa izan zedin Ikastolako kudeaketan eta erabakietan, etengabe egindako ahalegina.

Beraz erabaki une bakoitzean ikastolako hezkuntza proiektuari begira jarri eta garaian garaiko konpromisoa berreskuratu dugu; hau dela eta, 0-16ko Udal esleipenera aurkezteko garaian, honakoak izan ziren Ikastolako Hezkuntza Proiektutik kontuan hartu genituen xedeak eta, gure ustez, onurak ekarriko dizkiokeenak Haur Eskolarekin elkartzeari:

- “Euskal Herrian sustraitutako eskola eraiki, erronkari ekin eta gure



UDARREGIKO IKASLEAK,
IAZKO INAUTERIAN
EGINDAKO ARGAZKIAN.

hezkuntza lana aberastu nahi dugu”.

- “Usurbilgo herri izaera eta bertako bizia mantentzeko, bertako haurrak herrian haztearen garrantzia azpimarratu nahi dugu”.

- “Etorkizuna egiteke dagoenez, hezkuntza kalitatea etengabe landu eta gizartearen aldaketa azkarrei aurre egiten ahalegindu nahi dugu”...

Horregatik, xede hauei erantzukizunez erantzun behar geniola iritzi zion Ikastolak, eta gogoeta estrategikoan jasoa zuen 0-16 adin tarteko seme-alabak dituzten familiei Hezkuntza Zerbitzu integrala eskaintzearen aukera lehentasuntzat hartu genuen.

Gaur egun arte, Ikastolak, Usurbilgo biztanleriarekiko ase duen Hezkuntza Zerbitzua hedatu eta osatzeko aukera paregabea ikusi zuen esleipen honetan. Hala, 2008-2009 ikasturteari begira saiakera berri bat egin nahi izan zuen bere Plan Estrategikoaren lehentasuna den hezkuntza zerbitzu integralaren eskaintza sustatu asmoz, eta honetarako, Usurbilgo Haur Eskolaren Zerbitzuaren Kudeaketarako Udalak ateratako esleipenera aurkeztea erabaki zuen.

Gurasoei zuzendutako orientazio zerbitzua

NOAUUA! Orientazio zerbitzua, Nikasleentzat ez ezik, gurasoei ere zuzenduta dago. Gero eta lanpetuago bizi garen garai honetan, akaso hortik dator gurasoei zuzendutako zerbitzua. Gurasoak baliatzen al dute aukera hori?

Mariaje Imaz. Orientazio Departamendua sortu zenetik eskaintza hau zabalik egon da ikastolan, beti argi izan baitugu, zeinen garrantzitsua den familia eta ikastolaren arteko harreman estua izatea hezkuntzako edozein gairen kudeaketarako.

Familien parte hartzea eta beraien dugun harremana garrantzitsua izanik, ikasleen orientazio beharrak artatzeko garaian zeresanik ez! Beraz, beti parean joan dira, profesionalok, ikasleekin egindako lana eta haien familiekin egindakoa.

Alabaina, batzuetan ez da Ikastola nahi adina baliatzen aukera hau eta horregatik, saiakera ezberdinak egin izan ditugu Departamendu honen ezagutza handiagoa bideratzeko.

Duela lau ikasturte, eta ikasleak etapa batetik bestera pasatzen direneko unea aprobetxatuz, beren familiekin bilera bat antolatzen dugu, Departamenduaren egituraz, funtzioaz, eginkizunez eta departamenduko irakasleen berri emateko.

Honek lagundu du zerbitzuaren ezagutza areagotzen, baina oraindik sakondu behar dugu ildo honetan.



UDARREGI IKASTOLA



Udarregi ikastolak zera eskaintzen dizuete:

- 0 urtetik 16 urte bitarteko irakaskuntza arautua.
- Heziketa euskalduna: euskaraz ikasi eta bizi, eta Euskal Herriko Kultura eta herri-ekintzetan murgildua dagoena.
- Balore eta jarreraren lanketa, heziketaren ardatz gisa.
- Irakaskuntza Eleanitza: D eredu; ingelesa 4 urtetik aurrera; gaztelera Lehen Hezkuntzaren 3. mailatik aurrera eta frantsesa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.
- Orientazio Departamendua: tutoretza eta banakako orientazioa. Orientazioa gurasoentzat.
- Heziketa Behar Bereziak dituztenentzat: Laguntza Gela.
- Hizkuntzetarako irakasle espezialistak.
- Informazio eta Komunikazio-Teknologiak: Informatika, Internet eta Ikus-entzunezkoak.
- Garraioa auzo guztietara.
- Jangela: dieta orekatuak eta osatuak. Haur Eskola (0 - 3) janari ekologikoa.
- Eskolaz kanpoko jarduerak: kirolak, dantza.
- Ikasleen Goizeko Zaintza: 08:00etatik 09:00etara.

41 urteko esperientzia Usurbilen.

Matrikulatzeko epea (3 urtetik-16 urtera)
Otsailaren lehenengo HAMABOSTALDIAN:

HAUR HEZKUNTZA: 3 - 6

LEHEN HEZKUNTZA: 6 - 12

DBH: 12 - 16



943 361 216

Udarregi Ikastola

Gernika ibilbidea, USURBIL

www.udarregi.com

www.udarregi.mundua.com

Otsailaren 1ean sortuko da produktu ekologikoen inguruko elkarte

Produktu ekologikoak sustatze-ko herrian sortu den taldeak pauso berri bat emango du, datorren astelehenean, otsailak 1; elkarte izaera hartuko du. Egun horretarako antolatu duten bilkuran gainera, taldeari ere izena jarriko diote, bertaritzen direnei bazkide laguntzaile izateko aukera eskaintzarekin batera. Horregatik, hilaren 1ean, 18:00etan Artzabalen deitua duten bilkurara joateko gonbita luzatzen diete herri eragile eta herritarrei.

Larunbatean, Aiara

Larunbat honetarako, urtarrilaren 30erako irteera antolatu dute produktu ekologikoen inguruan sortu den taldeko kideek. Aiara joatea proposatzen dute, bertako mermelada ekoizle baten lantokia ezagutzera. Hitzordua, goizeko 10:00etan jarri dute, Alkartasuna nekazal kooperatibatik



LARUNBAT HONETAN IRTEERA
ANTOLATU DUTE, AIARA JOANGO DIRA.

irteteko. Aldez aurretik eman behar da izena 660 061 251 telefono zenbakian edo pedroalberdi@hotmail.com posta elektronikoa.

Otarrak eskatzeko aukera

Aipatu telefono zenbakira deituta edota posta elektronikora e-mail bat idatzita, produktu ekologikoz osatutako otarrak eskatzeko aukerak zabalik jarraitzen du. Lehen otarrak, pasa den urtarrilaren 11n banatu ziren.

“Hor al zaude?”, antzerki saioa Sutegin

Kanpingags Konpainiak Javier Daulte antzerkigile argentinarren lan bat egokitu du euskarara, “Hor al zaude?” izenburupean ezagutzera eman dena. Larunbat honetan, urtarrilak 30, Sutegin ikus ahal izango da antzezlan hau, 20:00etatik aurrera. Maitasunari buruzko gogoeta egiten da obra honetan.

Sarrerak 8 eurotan daude salgai kiroldegian, aldez aurretik erosita. Egunean bertan, 10 euro Sutegiko lehiatilan.



AINHUA AIERBE ETA ASIER HORMAZA,
ANTZEZLANEKO AKTOREAK.

Arrain ugari hilik azaldu dira Aliriko zubi ondoan

Barbo ugari hilik azaldu dira azken egunotan Ori ibaian, Aliriko zubi parean, Zubietan hain juxtu. Arrain handiak dira, berrogei eta berrogeita hamar zentimetro bitartekoak. Eguzki talde ekologistak egin du salaketa eta argazkiak ere igorri dizkigute.

Eguzkikoek aditzera eman dutenez, “ez da guztiz segurua, baina, itxura guztien arabera, hilketa hau lotuta dago aurreko astelehenean Urnietan izan zen

istripuarekin. Produktu arriskutsuak garraiatzen zituen kamioi batek beste baten kontra jo eta, horren ondorioz, 10.000 litro lixiba isuri ziren”. Horietatik asko Akan errekarara joan ziren, Urumea bailarara. Beste batzuk, berriz, Ziako errekarara, Ori bailarara. Bazirudien isuri kutsakorraren eragin nabarmenena Urumean gertatuko zela, baina, antza denez, Orian ere uste baino kalte handiagoa izan da.



EGUZKIKOEN ATERATAKO ARGAZKIAN,
BARBOA HILIK ALIRIKO ZUBI ONDOAN.

teilatua eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE



Obaba kalea 29 · ASTEASU
© 943 69 68 52 · 620 800 186

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

Otsailaren 13an, denok... zirkora!

Brasildarrak lehenbizi, zomorroak etorri ziren gero, iaz kirolariz bete zen herria olinpiadak zirela eta... Aurten, zirkoaren txanda da, eta hango kide inprobisatua bihurtuko dira herritarrek. Otsailaren 13a konturatzeko helduko zaigu. Beraz, mozorroa prestatzen hasi.

Naturako elementuak, kirolak... eta orain ikuskizunen tartea iritsi da. NOAUA! kultur elkartearen eskutik, datorren otsailaren 13an zirko ikusgarri baten gunean bilakatuko da Usurbil. Baina ohi denez, herritarren parte hartzea ezinbestekoa izango da. Atera ganbaratik traje zaharrak, sortu berriak, eta batez ere, prestatu beste pertsonaia edo animaliaeren paperean sartu eta primeran pasatzeko. Inauteriak jada hurbil ditugu eta.

Pailazoak, trapezistak, zirkoko animaliak

Gaia aukeratua dagoenez, mozorroak prestatzen hasia hurrengo lana. Aurreko urteetan bezala, oraingoan ere gai zabal baten aldeko apustua egin da, ahalik eta herritar gehienek mozorro festan parte har dezaten eta bestalde, mozorroak ere anitzak izan daitezten. Zirkoa ideia bat baino gehiagorako inspirazio iturri izan liteke; pailazoak, trapezistak, zirkoko animaliak...

Arratsaldean hasiko da festa

Zeintzuk agertuko dira otsailaren 13ko kaleko zirkora? Ohi bezala, ikus-tekoa izango da. Hitzordua jarria dago, 18:30etan. Haur, gazte, heldu... denok mozorrotu eta zirkora ondo pasatzera!



GAZTE ZEIN HELDU, JENDE ASKO MOZORROTZEN DA INAUTERIETAN. ZIRKOA DA PROPOSATU DEN GAIA.

Afarirako txartelak, NOAUA!n salgai

Afarira mozorrotuta joatea ezinbestekoa izango da, eta ezinbestekoa baita, aldez aurretik txartela erostea. NOAUA!-ko egoitzan eskuragarri izango dira, 29 euroren truke.

Bezperan, ikasleen txanda

Inauterietako ikuskizuna prestatzen hasiak izango dira honez gero, Udarregi ikastolan. Ohi bezala, Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleek parte hartuko dute Inauterietan urtero Kiroldegian burutu ohi duten jaialdian. Aurtengoan, otsailaren 13an izango da. Ostiral goizean, 11:15etik aurrera.

Kalezarreko parkeari buruzko bilera

Kalezarreko parkeari buruz Kazken aldian egindako inkestan hainbat proposamen egin dituzte herritarrek.

Aipatu iradokizunei buruz hitz egiteko bilera antolatu du Belmonte auzo elkarteak. Urtarrilaren 29an, ostirala, 17:30ean Harane futbol zelai ondoko lokalean.

Bihurri Txiki ludotekan izena emateko garaia

Bihurri Txiki ludotekako bazkide egiteko, hirugarren deialdi bat izango da datorren astelehenean, otsailak 1. Arratsaldeko 17:00etatik 18:00etara, ludotekan bertan eman behar da izena (lehen Gure Pakearen egoitza zen toki berean). Kontu korrontearen zenbakia ere ludotekan bertan eskuratu ahal izango da.

Lehen aldiz bazkide egiten direnek, 20 euro ordaindu behar dituzte bazkide egiteagatik gehi beste 10 euro, urteko kuotarengatik. Lehendik bazkide direnek, urteko kuota bakarrik, 10 euro baino ez.

Giltza itzultzea

Bestetik, ludoteka utzi duten gurasoei giltza itzultzeko eskaera egin zaie.

J.ORBEGOZO
ITURGINTZA • GASA • BEROKUNTZA
BIZKARRA 1, 1.ESK 943372937 • 659602789

txirriStra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466
pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak
TABERNA

Jubenilen futbol taldea, Gipuzkoako Koparen bila

Denboraldi erdia egin du Usurbil Futbol Taldeko jubenilen taldeak. Giro onean eta oso motibatuta ekingo diote bigarrenari. Hemezortzi jokalariz osatutako taldearen entrenatzaile Kepa Gomezek argi du; aurtengo denboraldiko erronka, Gipuzkoako Kopa irabaztea izango da. 2010-11 kirol urtekoa berriz, ohorezko mailara igo ahal izatea.

NOAUA! Denboraldiko lehen zatia amaitzeaz da. Nola ikusten duzu aurtengo osatu den jubenilen talde berria?

Kepa Gomez. Esperantzagarria da. Beraien artean oso ondo uztartu dira, talde oso trinkoa osatzen dute, oso ondo onartzen du planteatzen dizkiegun entrenamendu saioak. Goranzko bidean goaz, denboraldia oso ondo amaituko dugula uste dut. Denboraldi erdialde honetan, nire balorazioa oso ona da.

N. Udallerri desberdinetako kirolariak bildu dira zuen taldean. Nolakoak izan da egokitzapen prozesua?

K. G. Ondo joan da. Andoaingo Euskalduna futbol taldeko jokalariek ditugu. Taldeak oso harrera ona egin die. Bada tartean, azken orduan Usurbila bizitzera etorritakoren bat ere, eta ondo integratu da. Taldeak erreakzio gaitasun handia du.

N. Zeintzuk dira taldearen beste indar guneak?

K. G. Batez ere, talde honen sorrerarekin oso motibatuak daudela ikusten dut. Lehiakortasuna oso barneratua dute. Ziur naiz, Kopan maila ona emango dugula, asko motibatzen direlako. Topera entrenatzen dute, oso ondo egiten dute. Entrenamenduetan egiten ditugun partidetan ere, oso motibatuak egon ohi dira.

N. Nola amaitu nahi zenukete denboraldia?



MOTIBAZIOA ETA LAGUN ARTEKO GIRO EDERRA DIRA JUBENIL MAILAKO TALDEAREN EZAUGARRI NAGUSIAK.

K. G. Talde honen helburu nagusia, Preferente mailan jokatu ahal izateko prestatzea da. Ni oso pozik egongo nintzateke, maila honetako azken urte hau amaitzen dutenek, Preferente mailara pasa eta ondo moldatuko direla jakinda.

Bestalde, kadeteen mailako talde bat dator atzetik, eta haiekin nik uste talde oso indartsua osatuko dugula datorren denboraldian. Ia hala den eta mailaz igo gaitzek, ohorezko mailara. Maila polita litzateke. Hori da erronka, eta aurtengo ia Gipuzkoako Kopa irabaz dezakegun.

KEPA GOMEZ

“Jokalariek lagunak dira herrian eta, aldi berean, lagunak dira futbol taldearen barruan”

N. Aurtengo balorazio baikorra beraz, datorrenaren aurrerapena baino ez da?

K.G. Hau guztia datorren denboraldiari begirako lana da.

N. Adin tarte zaila da halere, ikasle askorentzat kanpora ikastera joateko garaia baita. Horrek eraginik izan dezake?

K. G. Alde horretatik aurtengo zortea izaten ari gara. Baina datorren denboraldian gerta liteke. Halere, horretara ohitua nago. Ohitua nago jokalariei ikastera doazen lekuetan, futbol talde batean tartea bilatzen, astean zehar entrenamendu saioak burutu dituzten. Eta gero, betiko taldera etor daitezke neurketak jokatzerara.

Alderantziz ere, kanpotik zonalde honetara ikastera etorritako kirolarietara gurekin entrenatzeko aukera ematen diegu. Gero, jatorrizko taldera joaten dira jokatzerara.

“Dena oso ondo planifikatuta dago”

N. Zuen lan dinamikatik, zein da jokalariek gehien baloratzen duten alderdia?

K. G. Garrantzitsuena zera da; jokalariek lagunak direla herrian, eta aldi berean, lagunak direla futbol taldearen barruan ere. Oso gustura nago haiekin, nahiz talde berria izan, txunditua nago, oso ondo moldatzen baitira. Kanean duten harremanaren ispilu da, talde barruan duten giroa. Horrek lana asko errazten digu. Bestalde, eskerrak eman Usurbil Futbol Taldeko kideei, erraztasun asko ematen dizkigutelako. Entrenamendu saioetan adibidez, dena oso ondo planifikatua dute. Oso gustura nago.

Agenda !

Urtarrilak 30 larunbata
- Kantu-jira kalez kale, 19:00etan frontoian.

- "Hor al zaude?" antzerki saioa, 20:00etan Sutegin. Sarrerak aldeztu aurretik 8 euro kiroldegian. Egunean bertan, 10 euro.

Eguneko goardiako farmaziak

Urtarrilak 28, osteguna
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Urtarrilak 29, ostirala
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Urtarrilak 30, larunbata
Oa, Kontseju Zarra 11 Usurbil
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Urtarrilak 31, igandea
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Otsailak 1, astelehena
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Otsailak 2, asteartea
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Otsailak 3, asteazkena
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Otsailak 4, osteguna
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Otsailak 5, ostirala
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Otsailak 6, larunbata
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Otsailak 7, igandea
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
*Chucla farmazia (22:00-09:00),
Kardaberaz, 48, Hernani (943 551 793)*
**Usurbilen, soilik eguerdina arte*

Areto futbol txapelketa antolatu du Usurbilgo Gazte Ekimenak

Usurbilgo Gazte Ekimenak areto futbol txapelketa antolatu du. Partidak ostiraletan gaueko 21:00etan jokatu dira frontoian edo kiroldegian (oraindik zehazteko) otsailaren 12, 19 eta 26an. Finala Gazte Egunean izango da, martxoan. Txapelketa zuzeneko kanporaketa moduan jokatu da.

Baldintzak hauexek dira
-Partaideak 17 urtetik gorakoak izatea (1993. urtean edo lehenago jaiotak).

-Taldea bakoitzean gehienez ere 12 jokalaririk izango dira.

-Taldea bakoitzak 70eur o ordaindu beharko ditu izena emateko.

-Izena emateko azken eguna: otsailak 9.



Aurkeztu beharrekoak

Taldearen izena, arduradun baten izena, jokalaririk guztien NA agiriaren fotokopiak (aseguruak egiteko), taldeak aukeratutako kamisetaren kolorea. Goian aipatutako datuak eta ordaindu beharreko dirua batean sartuta Zendoia tabernara eraman beharko dira otsailaren 9a baino lehen.

Agirretxe Taldea osatzen hasi dira

Realeko usurbildar jokalariek laster jarraitzaile talde bat izango du herrian. Bazkide egiteko kanpaina jarri dute abian bere lagunek. Agirretxe



Taldeko bazkide egiten direnek abantailak izango dituzte. Besteak beste, bidaletan. 18 urtetik gorakoek urtean 50 euro ordaindu beharko dituzte eta 18 urte azpikoek, 25. Informazio gehiago: www.agirretxetaldea.com

Asteburuko pilota partidak

Urtarrilak 29 ostirala
19:00etan Usurbilen

Kadeteak 3.maila
USURBIL - ZUMAIA
(Iñigo Ibargoinen - Imanol Rebollo)

Nagusiak 2.maila
USURBIL - ANTIGUAKO
(Iban Arruti - Josu Ostolaza)

Nagusiak 1.maila
USURBIL 2 - BELOKI
(J.Santxo-J.Urruzola) (Zumarraga)

ERRAZKIN
Igeltseritza S.L.
Tel.: 649 435 470
Faxa: 943 372 679
K./ Nagusia 47. Behea A.
20170 USURBIL

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
943 370 008

BENTA
TABERNA
Oilasko erreak
Ogitartekoak
San Ignacio 1, behea
USURBIL 943 36 93 05

Patri Jatetxea

K./nagusia 14. © 943 362 725

ETXEBIZITZA

- Neska euskaldunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- Landetxe bat saltzen da Alfaron (Errioxan). Astebukaerak eta oporraldierarako egokia. Terreno eta pistinarekin. Herritik 1,2 kilometrotara. 2 logela, egongela tximenearekin, sukaldea, komuna eta portxea. 675702428 (gauetan).
- Etxe bat konpartitzeko pertsona baten bila nabil. Interesatuak deitu 20:00etatik aurrera 661568471.
- Gela bat alokairuan pertsona serio batentzat, pisu berri batean. 300 euro, gastuak aparte. Usurbil inguruan. 609 901 734 edo 943 575 788.
- Muna Lurra kalea 16, 3.C salgai. Eguzkitsua eta berritua. Interesatuak deitu: 637225620.
- Pisu bila nabil Usurbilen. Alokairuan nahi nuke. 664 885 737.
- 95metro karratuko etxebizitza salgai Kaxkoan. Erreforma behar du baina aldaketak egiteko aukera asko. 638279184.
- Orion babes ofizialeko etxe bat daukat eta Usurbilen babes ofizialeko exeren bat daukan norbaitekin aldatuko nuke. Interesatuak deitu 663600020.
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursailean. Kalezarreko eremu urbanoan. 665720913.
- Bordaberri 3 kalean etxe bat daukagu salgai. 676910638.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Santueña 26an 60metro karratuko etxea daukagu salgai. 2 gela, sukaldea handia, etxek kanpokaldera ematen du, gasa eta kalefazioa ditu. 200.000. 666539284.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna,... eta trasteroarekin. 685731792.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.
- Lasarten apartamentu bat salgai, egoera onean. Erdigunean. Toki lasaia eta berritu berria. Bikote batentzat egokia. 657708866

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Aprilia Chester R-125 motorra daukagu salgai. Egoera onean eta prezio interesgarria. 661618970
- Beheko Kale Atxegalden lokal bat daukagu salgai. Interesatuak deitu 645736726 telefonora.
- Karabana bat salgai. Modelo zaharra da baina egoera oso onean dago. Prezio interesgarria. 646514494
- Mitsubishi L200 bat salgai. SS-AZ eta egoera onean. 646514494
- Mendiko terreneak erosiko nituzke. Basoa ateratzeko edo basorik gabea ere bai. 943362237.
- Atxegalden 33 metro karratu dituen lokal bat alokatzen da. Sarrera egokia. 943373414. 280 euro

- hilean.
- Garaje bat alokatzen da Bizkarre kalean. Neurriak 2,5m x 5m eta 2,1 metroko altuera. 943361265.
- Usurbilgo industrialde batean 220 metro karratuko pabiloi bat alokatzen da. 616926027.
- 50cc-mo motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajea, ondo zaindua. 622369646.
- Sotano komertzial bat alokatzen da 600 eurotan. 650938489
- Txoko polit bat alokatzen da. 650943847
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.
- Etxebeste kalean 44 m2-ko lokala alokatzen da. Interesatuak deitu: 943 36 12 19.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Esperientziadun emakumea behar da goizez etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. Hiru orduz: goizeko zazpizatetik hamarretara. 687 055 166.
- Astebukaeratan lan egiteko, zerbitzari moduan aritzeko pertsona bat behar dugu. 943 36 67 10.

Lan-eskaintzak

- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein haurrak zaintzeko lana bilatzen du. 660554968
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 630438571
- Gizon bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko edo baserriko lanak egiteko. 662461568
- Emakume bat (paperak ditu) eskaintzen da pertsona helduak edo umeak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile aritzeko. 618128461 / 943575788.
- Mutil gazte bat eskaintzen da eraikuntza lanak, garbiketak eta baserri lanetan aritzeko. 677593772
- Jardineritza lanak egiten ditut, txukun eta modu onean. Inaki: 677 44 31 40.
- Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketa lanak egingo nituzke. Interesatuak deitu 656446835
- Pertsona helduak zaintzeko neska bat eskaintzen da. Esperientziaduna. 606 800 837.
- Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
- Emakumea interna edo goiz zein arratsaldez orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Zerbitzari, sukaldari laguntzaile edo garbitasun lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 664048228
- Emakume bat haurrak zaindu edota orduka etxeko lanak egiteko prest. 943 575 788.
- Mendingian edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608835033
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, esperientzia handia. 646717676.

- Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943368574.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 620185927.
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska euskaldun bat eskaintzen da. 685716774.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630768325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 620 364 176.
- Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
- Neska gazte esperientziaduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. 661 626 500 // 943 371 348.
- Fisika eta matematikako klase partikularrak emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. 679742413.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Aiako babarruna salgai, prezio onean. 670410273.
- Logelako armairu bat daukat salgai. Lau ateko armairua, bi urte ditu eta egoera oso onean dago. Interesatuak deitu 600369013 telefonora.
- Dorleta Kinkilegia traspasatzen da. Interesatuak deitu 609099824 telefonora.
- Urtarrilak 6an harribitiak zituen urrezko eraztun bat galdu nuen Eliza eta Kaffa kafeteri artean. Norbaitek aurkitu badu eskertu nuke telefono honetara deitzea 943365631.
- Zaldi bat jartzeko lur sail bat edo ikuilu bat alokatuko nuke Usurbil edo inguruan. 616260451
- 7 gazteko lagun taldea gara eta lokal bat alokairuan hartuko genuke, 200 bat euro. 606 101 980.
- Ostalaritzako makinaria, kafetegiko altzariak salgai; aukiak, mahaia, kafe-makina,... 607 389 570 (Mireia). istergo@hotmail.com
- Atxegalden 30 metro karratuko lokal bat alokatzen da (lehen Truke). 943 373 414.
- Informatikaria naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero. Oskar: 609 468 759 oskarsm@hotmail.com
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Inaki)
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
- Ezkontza zein ekitaldian abesteko kantari liriko. Maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Etxebizitzaren erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriei eta urtebeteko behorra. 626 220925



Zorionak Zaira eta Aixa!
Batak otsailaren 4an eta

bestean 2an egingo dituzue urteak. Zorionak eta muxu haundi bana etxeko guztien partez!



Zorionak Paula! Urtarrilaren 28an egingo dituzu 10 urte. Etxekoen eta

lagunen partez zorionak eta besarkada handi bat bidaltzen dizugu. Ondo ondo pasa!



Zorionak Elena Juan! Urtarrilaren 30ean egingo dituzu 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat amona

Txaro eta familia guztiaren partez.



Zorionak Imanol! Urtarrilaren 30ean gure etxeko gizontxoak 9 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu bana etxekoen partez.



Zorionak Membri! 40 urte egiten dituzu dagoeneko. Muxu handi bat familiaren partez

eta ondo pasa!



Zorionak Inge! Urtarrilaren 26an egingo dituzu 2 urte! Ondo ondo pasa eta besarkada

handi bat eta txokolatezko muxuak familiaren partez!



Zorionak Amaia Harto! Urtarrilaren 31n egingo dituzu 11 urte. Zorionak eta muxu handi bat amona Txaro eta familia guztiaren partez.

HILDAKOAK

Praxku Azpiroz Alsua, 79 urterekin hil zen urtarrilaren 20an



ALIPROX

Kale Nagusia 10
☎ 943 361 182
USURBIL

Otar-Goxo
Elizkargiak

Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

URDAINTZI S.L.

orainkuntza

943 36 55 81
943 36 55 81
943 36 55 81

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Oñandegin - Gozotegia

LABE-GOXO

AGINAGAKO Herri Eskola

Eskola bizirik, Agiña bizirik!



• 2-12 urte bitartekoentzat euskarazko irakaskuntza eskaintza zabala doan: ingelesa 3 urtetik aurrera, musika, internet gela guztietan, heziketa bereziko irakasle espezializatuen zerbitzua...

• Doako garraloa behar dutenentzat.

• Jantoki zerbitzua.

• Eskola orduz kanpoko ekintza ugari: ludoteka, liburutegia, larunbatetako txokoak, udalekuak...

izena emateko epea: Otsailaren 1etik 12ra.



Usurbilgo Udala



baikara
Gipuzkoako Ikasle
Gurasoen Federazioa

AGINAGAKO HERRI IKASTETXEA

Erriberako Kalea 7

20170 AGINAGA

Tel. 943 372044

Faxa: 943 372044

012261aa@hezkuntza.net

HONDAKINEN BILKETA SISTEMA USURBILEN

HERRI KONTSULTA

OSASUNA ETA INGURUMENA JOKOAN

otsailak 27 eta 28

